

Antropologoa etxean

(The anthropologist at home)

Leizaola, Aitzpea

Univ. del País Vasco / Euskal Herriko Unib. Filosofia eta Hezkuntza
Zientzien Fak. Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia Saila.
Tolosa Hiribidea, 70. 20018 Donostia
aitzpea.leizaola@ehu.es

BIBLID [ISBN: 978-84-8419-218-3 (2011), 87-94]

Lan honetan 'antropologoa etxean' delakoa dugu hizpide, bere jatorrizko ingurune soziala aztertzeari ekin dion antropologoa alegia. XX. mendearen azken aldean sortutako figura honen inguruan hainbat eztabaida izan dira: antropologia egiteko zilegitasuna auzitan jartzea, diziplinaren bilakaera munduko aldaketa geopolitikoaren ondorioz, landa laneko harremanak eta subjektibotasuna, besteak beste. Figura honen sorburuak aztertzea egungo gizarte antropologiaren zenbait eztabaida ulertzeko gakoa da.

Giltza-Hitzak: Antropologo natiboa. Deskolonizazioa. Landa lana. Ikerlariaren zilegitasuna. Subjektibotasuna.

Este artículo trata sobre el antropólogo en casa, es decir el/la antropólogo que estudia su sociedad de origen. En torno a esta figura de finales del siglo XX se concentran una serie de temas y debates, entre los que se encuentran, entre otros, el cuestionamiento de la legitimidad para hacer antropología, el devenir de la disciplina marcado por los grandes cambios geopolíticos, las relaciones de trabajo de campo y la subjetividad. El análisis de los fundamentos de esta figura permite entender algunos debates contemporáneos en antropología social.

Palabras Clave: Antropólogo nativo. Descolonización. Trabajo de campo. Legitimidad del investigador. Subjetividad.

Il est question dans cet article de 'l'anthropologue chez soi', à savoir, des recherches menées par les anthropologues dans leurs sociétés d'origine. Surgie à la fin du XXème siècle, la figure de l'anthropologue chez soi a suscité une série de questionnements tels que la légitimité du savoir anthropologique, l'influence des grands changements géopolitiques dans le développement de la discipline, les rapports sur le terrain et la subjectivité. Une mise à l'examen de cette notion permet d'appréhender la teneur de ces débats dans l'anthropologie contemporaine.

Mots-Clés : Anthropologue natif. Décolonisation. Travail de terrain. Légitimité du chercheur. Subjectivité.

'Indigenous' is a misnomer, for all of us are indigenous somewhere and the majority of anthropologists at some time deal with their own communities.

Elizabeth Colson

The first obvious question is 'who are the natives?'

Kirsten Hastrup

Izendatzearen bidez, antropologoen lehenagotik existitzen ez ziren gizarteak asmatu dituzte, gogorarazten digu Kirsten Hastrup antropologo daniarrak (Hastrup, 1993). Izendatzea, talde izaera jakin baten oinarri eta abiapuntu gisara aspaldidanik ikertu izan dute antropologoen, berau munduaren tokirik urrunetan zer nola gauzatzen den ikertuz. Era berean, antropologoen ere jardun honetan izan duten eraginaz jabeturik, izendatzeak egoera sozial eta politikoan izan dituen eta izan ditzakeen ondorioez eta antropologoen eta erantzukizunari buruz hausnartu dute zenbait autorek¹. Honako artikuluan baina, antropologia zuzen zuzenean eragiten digun izendatze eta sailkatze bati buruz jardungo naiz. Izendatzearen bidez, inoiz antropologiaren azpi atal gisa aurkeztu izan den kategoria berri bat sortu zuten joan den mendeko azken laurdenean antropologoen: antropologia etxean deritzonaz ari naiz hain zuzen ere.

Kategoria honek izendapen bat baino gehiago jaso zituen sorreratik bertatik: 'antropologia etxean', 'antropologia endogenoa', zein XX. mendearen azken bi hamarkadatan ugaritu ziren antropologo 'natiboak', 'etxeak' (*domestic anthropology*, ingelesez), indigenak, auto antropologoak, antropologo lokalak, zein barneko antropologia. Azken honek bereziki antropologia estrukturalistak hain maite zituen pare kontrajarrien egituraketari jarraiki, sistema binario eta antagonistaren antolaketa salatzen du: nola pentsa barneko antropologia, kanpoko antropologia ezean? Izendatze sorta guzti honen atzean, ñabardurak ñabardura eta eskola desberdinen eragina alde batera utzirik honako ideia dago, norbere gizartean ikerketa burutzea.

Euskal Herrian burutzen den antropologia izendapen guzti hauek deskribatuko luketen kasuistika baterik dago. Hein handi batetan, Euskal Herrian lan egiten duten antropologoen artean salbuespena izan dira eta dira oraindik ere Euskal Herrikan kanpo landa lana burutzen dutenak. Egoera ez ohiko honek faktore desberdinen konbinazioa du abiapuntu. Lan honetan, 'antropologia etxean' izendatu izan dena aztertzea dut xede, landa lana toki batetan edo bestean egiteko hautuak dakartzkien baldintzapenak arakatu asmoz. Ez baita, askok hasiera batetan hala uste izan bazuten ere landa lanaren kokagune fisikoa ikerketaren baldintzapen nagusia. Landa lanean izandako hainbat esperientzia baliatuko ditut argumentazioan aurrera egiteko.

1. Gertaera garaikideen artean topa dezakegu honen adibiderik gordinetako bat, Rwandako genozidioaren funtsean.

1. IZENDAPENEN ZERRENDA AMAIGABEA... KATEGORIA BERRI BATEN SORRERA?

Formulazio honek baina arazoa izendatzen, eta honen bidez, kategoria jakin eta bereizi bat sortzen errealitatearen deskribapenera eramaten du. Zer da bada, norberaren gizarte egungo mundu globalizatu eta konektatua? Gizarte bakar bateko kide al gara? Eta non eta noren arabera jokatu dira gizarte bat eta bestearen arteko mugak? Van Ginkel itxuraz ximplea dirudien galdera honi irtenbidea eman nahirik, hala dio: "I simply mean research in the anthropologist's own national setting and ethnic group" (Van Ginkel, 1994).

Honela, arazoa beste esparru batetara eraman besterik ez dugu egiten. Egun klasikoa den Fredrik Barthelemy 1960. hamarkadaren amaieran erakutsi zigun moduan taldeetasuna eta izaera kolektiboa ez datzala ezaugarri jakin batzuk izatean edo ez, baizik eta desberdintasuna hala dela sinestean (Barth, 1969). Barthelemy talde etnikoen esparruan xedatu zuen definizioa baliagarria zaigu beste mota batzuetako giza taldeetarako, hala nola, testuinguru nazionalaren baitan definitu ohi den komunitate nazionalen esparrurako ere. Hori horrela, antropologia egiten dutenen artean jatorria eta landa lanaren arabera bereizitasunak zer esanahi du? Zer nolako inplikazioak izan ditu gure diziplinaren bilakaeran azken hogeita hamar urtetan?

Lehenik eta behin, bilakaera honetan faktore geopolitikoek sekulako garrantzia izan dute, mundu mailan nazioarteko harremanen antolaketa politikoan eragin zuzena izan dutenak. 1960. hamarkadan Bigarren Mundu Gerraren amaieraz geroztik abian jarritako deskolonizazio prozesuak goia jotzen du. Deskolonizazio prozesua bereziki Afrikan eta Asian gertatu zen, gehientsuenetan independentzia gerren emaitza izan ziren estatu berriekin. Deskolonizazio prozesuak eragin berezia izan zuen halaber Hego eta Ertameriketan, non mugimendu iraultzaileek gizartearen antolaketa berri baten alde egiten duten borroka. Gizarte antropologian berebiziko eragina izango dute mundu mailan hedatu diren prozesuok. Lehenik eta behin, antropologiaren egitekoari buruzko ahots kritikoa agertzen dira esparru akademikoan, gizarte antropologiak historikoki kolonizazio prozesuetan izandako papera salatu eta auzitan jarri. Kolonizazio prozesuetan parte hartze zuzena izan zuten artean daude besteak beste Evans Pritchard edota Gregory Bateson². Salaketa hauek ez ziren berriak. Jadanik Bigarren Mundu Gerraren testuinguruan orduko antropologo esanguratsuenak, Franz Boas³ek plazaratu zituen³, euren ikerketa jardueran eta bizitza profesionalean ondorioak pairatu zituelarik.

2. Evans Pritcharden parte hartzea sakonki aztertu zuen Clifford Geertz (Geertz, 1989). Batesonen parte hartzeari buruz 2MG, zein antropologoen mendebaldeko potentzien zerbitzura egindako lanari buruz luze eta zabal idatzi du David Pricek (Price, 1997; Price, 1998; Price, 2000). Azpimarratzekoa da antropologoen posizionamendua botere egituren alde lan eginez gaurdaino mantendu egin dela, 2008an Estatu Batuetako *Minerva* programak agerian utzi duen moduan.

3. Ezbairik gabe Franz Boas izan zen horien artean esanguratsuenak, ez bakarrik orduko Estatu Batuetako antropologorik ezagunena eta garrantzitsuenak zelako, baizik eta bere posizionamenduak ondorio zuzena izan zuelako: Artean, Estatu Batuetako antropologia erakunde nagusiko buru zen Boas dimitituaziti zuten. Xehetasun gehiagorako, ikus (Price, 2000 : 777).

Bestalde, gatazka giroan sortutako estatu berrietako administrazio osatu berriak ez zuen beti begi onez ikusten aurretiaz kolonia garaian bertan lan egin zuten ikerlariak, administrazio kolonialaren zerbitzura izandako gainontzeko administrazio langile zein militarrek bezala, bertan jarraitzea (gehientsuenak gerra lehertutakoan alde egin zuten). Ondorioz, XIX. mendeaz geroztik tradizionalki antropologoez azterleku izan zituzten lurraldeetan jada zaila ez ezik, zenbait kasutan praktikan guztiz ezinezko bihurtu zen ikerketa egitea, dela gobernu independenteen erabakien ondorioz dela independentzia ondorengo egoera politikoa egonkorragatik. Landa eremurik gabe, antropologoez mendebaldera jo zuten ikerketa eremu bila. Bigarren Mundu Gerra ondorenean Estatu Batuetako antropologoez Europa eta bereziki Mediterraneo "deskubritu" zituzten. Ordukoa da azken honen eraikuntza eremu kultural gisa, zeinetan antropologo britainiarrek ere parte hartu zuten⁴. Era berean, Estatu Batuetako gizarteak aztertzeari ekin zioten, ordura arte tradizionalki soziologiak aztergai izandako eremuetara joaz. Honen lekuko dira Chicagoko eskola deritzogunak hiri antropologiaren esparruan egindako lan aitzindariak, adibidez.

Europar bestalde, aspaldidanik zuen piztua bertako gizarte errealitateak ikerlari zenbaiten interesa. Hauek baina, gizarte antolaketaren esparru oso zehatz batera besterik ez ziren mugatzen, hain zuzen ere nekazal mundua zuten aztergai. Folklorista eta etnografo deituriko aditu hauentzat nekazal gizartea behinolako gizarte antolamenduaren azken aztarnen jabe zen. Hortaz, industrializazioaren eta oro har bizimodu modernoaren eraginpean guztiz desagertu aurretik –hala uste zuten behintzat– ikertu eta aitzinakotzat jotzen ziren bizimolde, lanbide, forma eta balio estetikoak gordetzeko nahikundeak mugituta nekazal gizarteen azterketari ekin zioten, bilketa lan handien bidez. Neurri batetan ordura arte gizarte exotiko urrunetan, gizarte antropologoez distantzia geografikoaren baitan bilatu nahi izan zuten iraganarekiko lotura –“gizarte primitibo” izendapenak argi uzten duen moduan– Europako kasuan ustezko denborazko distantzia baten baitan mamitu zen, nekazal gizarteak aitzinako gizarteen azken gordailuak bailiran.

Fenomeno guzti hauez gain, bada kontutan hartu beharreko beste elementu bat. Hirurogeigarren hamarkada arte, ikerlaria eta ikertuaren arteko muga oso argia zen orokorrean. Antropologoak urruneko gizarteak aztertu ohi zituen, kasurik gehientsuenetan idazten ez zekiten gizarteak, ez eta irakurtzen ere, are gutxiago produkzio zientifikoa ekoizten zen hizkuntzatan. Muga horrek alde batera uzten zituen testuak eta testu horietan agertzen ziren pertsona eta giza taldeak. Denborarekin baina, egoera honek aldaketa nabarmena izan zuen. Ordura arte ikertuak izan ziren komunitate eta gizarteetako kideak eskolatu eta zenbait kasutan, antropologia ikasketak egin zituzten. Ordura arte natibo izandakoa antropologo bilakatu zen. Esamoldea inbertituz gero, horra hor “antropologo natiboa”.

4. Mediterraneo eremu kultural gisara ulertzeak badu zerikusirik orientalismoaren eraikuntzarekin. Azken honen eraikuntza eta bere ondorioak sakonki aztertu eta salatu zituen Edward Saidek *Orientalism* bere lanik entzutetsuenean (Said, 1991).

Luzaz, antropologoa gizarte “exotikoetako” nolabaiteko pertsonaia bihurtu zen Kirin Narayanek (1993) dioen moduan. Lan ezagun batek jaso zuen moduan, “idazten duguna irakurtzen dutenean” (Brettell, 1993) akaso gauzak beste molde batez kontatzen dira ikertuek haiei buruz idatzitakoa irakur dezaketela jakinez gero, batez ere, aurrerantzean erantzuteko aukera dutelako. Honela, zenbait kasutan “antropologo natibo” izendatu izan direnek zalantzan jarri dituzte Mendebaldeko antropologoen haien gizarteei buruz egindako hausnarketa eta analisiak, hala metodologiari dagokionez (hizkuntzaren maila jakite apala, gaizki-ulertzeak, botere harremanetan burututako landa lana...) zein jasotako informazioari buruz. Sarritan, kolokan jartzea antropologia tradizionalaren egiteko moldeei buruzko kritika zorrotzarekin batera dator, alegia ez antropologia egitekoari buruzko kritikekin, baina bai aztertutako gizarte eta kulturen gaineko interpretazioei buruz (Nukunya, 1994). Gehiegitan informazio urrian oinarritu izan direla salatzen dute antropologo natiboek, bai eta zenbait kasutan, guztiz okerra den datuetan oinarrituta ere. Kritika guzti hauen artean, kolonialismo garaian jokaturako paperari buruzko erreferentziak jaso daitezke, bai eta gizarte antropologiaren tradizio epistemologikoari buruzkoak ere, izan ere, ordurarte, diziplina hau Mendebaldeko tradizio intelektuarekin baitan kokatu izan baita, zientziako beste hainbat esparrurekin gerta moduan. Hortaz, funtsean kritika bikoitza da, landa lanari lotutako batetik, eta antropologiaren izaera mendebaldarrari lotutakoa bestetik.

Azkar asko, “antropologo natibo” zein “ez-natiboak”-izendapen hau baliatuko dugu eztabaidaren onerakoa- euren posizioa defenditzeari ekin diote: norberaren gizartea ikertzeri buruzko onura eta desabantailen inguruko diskurtsoak ugaritu dira, alde bateko zein besteko, guztiak justifikazio tonuan. Posmodernismoak beste ezaugarri bat ekarri zion auziari, ikuspegi subjektiboari erreparatzea aintzat hartzen baita. Etxeko gizartea deiturikoa aztertzeke jorra berri honi ikerlari ugari lotu zitzaizkion, hainbestearino, zenbaitek diziplinaren biziberritze bat bezala kontsideratu duela, “antropologiaren ‘urrezko aro’ berri bat” (Messerschmidt, 1981).

Norbere gizartean egiten den antropologia nola izendatzeri buruz erabateko adostasunik ez badago ere, izendapenen aniztasunak adierazten duen moduan, antropologoen komunitatearen baitan bada halako onarpen maila tazitu bat zerrendatutako izendapen horiek adierazten dutenari buruz (Van Ginkel, 1994).

Asko idatzi da bertakoa izatearen aldeko eta kontrako argudioei buruz. Auzi honetan bada ere bestelako ikuspegi berri bat. Maila anitzeko identitatearen kontzeptuak eztabaida honetan zeresan berezi du, edonork identitate bat baino gehiago izan dezakeela kontutan hartu beharrean bait gaude. Antropologoak ez dira egoera honetatik at gelditzen noski, antropologoak, beste edonork bezala, identitate bakar bat baino gehiago izan baititzake (Narayan, 1993 : 93). Era honetan, antropologoak beharrezko du bere identitate aniztasunaz jabetzea eta egoera horri aurre egin behar dio ere. Honela, ikuspegi honek hautsi egiten du landa eremuan bertako antropologoak kanpokoak baino errazago “sartzen” direnaren ideiarekin bestelako hamaika faktore baitaude ikerketaren elkarrekintzan eta landa laneko hastapeneko fasean -zein ondorengo faseetan ere- aintzat hartu beharrekoak.

Bestalde, aipatu beharra dago Europar antropologoaren artean geroz eta gehiago badira ere euren gizartea –edozein delarik ere esamolde honek adierazi nahi duena– ikertzen duten antropologoak, gutxi idatzi da horrelako esperientziei buruz. Azpimarratzekoa da halaber, egoera hau orokorragoa izan dela Europako herrialde batzuetan, tartean kolonialismoan zuzenean parte hartu ez zuten Eskandinaviako herrialdeetan, adibidez, zein herrialde txikiagoetan.

Hamaika galdera sortzen dira “antropologo natiboak” eta “kanpoko antropologoak” parez pare jarri gero. Halere, galdera nagusia honakoa dela esan genezake, “natiboa” izateak berezitasunik dakarren berarekin antropologiaren esparruan, hots, landa lana egiteko garaian, eta desberdintasunik bada, ea horiek esanguratsuak diren ikerketari dagokionez. Hala, sarritan uste izan denaren aurka, norbere gizartean ikerketa egiteari buruz Edmond Leachek honakoa dio:

Fieldwork in a cultural context of which you already have first-hand experience seems to be more difficult than fieldwork which is approached from the naive viewpoint of a total stranger (Leach, 1982 : 24).

Egoeraz jabetzea, gertaeren esanahiak eta intenzionalitateak lehen kolpean ulertzeak zailtasun gehiago dakartzio egoera bera horren aurrean modu inozoan hurbiltzea baino. Azken finean, lehen kasuan, hamaika xehetasun zein sakoneko esanahia aintzat hartzeko arriskua are handiago baita, horratik zailtasunak.

Egun, antropologoaren ibilbidean nahikoa ohikoa bihurtu da hastapeneko landa lana urruneko eremuetan egitea –behinola “exotiko” eta “primitiboak” ziren gizarteetan– eta denborak aurrera egin ahala, norbere gizartera itzultzea, edo behinik behin mendebaldeko gizarteren batera, lotura profesionalak direla medio zein arrazoi afektiboengatik. Bilakaera honen ondorioz, kanpoan eta etxean landa lana egin duten antropologoak asko dira. Horieta-ko zenbaitzuk euren esperientziak konparatu dituzte (Aguilar, 1994; Boudewijnse, 1994), egoera hori-eta-ko bakoitzari lotutako inplikazio epistemologikoak aztertuz bai eta kasu bakoitzean baliatutako irizpide metodologikoak arakaturik.

Antropologia tradizionala deitu izan denaren metodoak edozein testuinguru-arako baliogarri ez izatea izan da “barneko antropologia” *insider antropologia* delakoaren aurkako kritikarik ohikoena, besteak beste testuinguru moderno eta urbanoak ikertzeko. Honako kritikok ez dute funts handirik, azken hogeitahamar urtetako antropologiaren garapenak erakutsi duenez. Horrez gain, gisa honetako kritikek antropologia urbanoaren hastapenak Afrikan gertatu zirela ahaztu dute. Laurogeigarren hamarkadaren hasieran Estatu Batuetako hainbat antropologok kritika hauen atzean dauden asuntzioen ahultasuna utzi zuten agirian. Honela, hastapeneko antropologiaren “erro teoriko eta tradizio metodologikoen artean erabateko hausturirik” (Messerschmidt, 1981) ez zegoela frogatu ahal izan zuten euren gizartean landa lana egin zuten antropologo estatubatuarrek, etxean egindako antropologiaren eta antropologia tradizionala edo exotikoaren arteko desberdintasunak funtsik gabeak zirela frogatuz.

Gaur egun antropologia etxean edo antropologo natiboaren inguruan sortutako eztabaidak gaudituta badirudite ere, ondo gogoan dut Nanterreko Unibersitatara iritsi berritan antropologia irakasle batek lehen landa lana norbere herrian burutzeari buruz adierazitako kontrako jarrera. Bere burua antropologo europeanistatzat zuen arren, artean antropologiako ikasle hasi berri nintzen honi nirea ez beste gizarte bat aztertzea gogotik aholkatzen zidan. Bestea ulertu ahal izateak neure gizartea ulertu ahal izateko giltza baitzen bere iritziz. Hartara, bere ibilbide antropologikoa jarri zidan adibidetzat: Madagaskarren lehen landa lana burutu ostean, ondotik Europako zenbait herrialdetan, tartean Frantzia berean eta beranduago Portugalen egina zuen landa lana. "Ibilbide luzea" hartze gomenatzen zidan. Aholkua ez ezik, kasik agindua zirudien. "Ibilbide laburrean" barneratzea nahiago izan nuen nik, ordea.

Joxemartinek ibilbide laburra ez ezik, etxe barrukoa hautatu zuela esan deza-kegu, hau da norbere herriaren ikerketa zentzurik literalenean aplikatu baitzuen. Ataundarra izaki, Ataungo herria eta gizartea izan zituen bere lehen ikerlanetako aztergai nagusiak, ahozko produkzioa bertan nola gauzatu eta zer nolako papera jokatzan zuen aztertuz.

2. BIBLIOGRAFIA

- AGUILAR, John L. (1994) "Going Against the Grain. Comparisons of Research at Home and Abroad", *Etnofoor* 7 (1); 53-72. or.
- BARTH, Fredrik (ed.) (1969) *Ethnic Groups and Boundaries*. London: Allen and Unwin.
- BOUDEWIJNSE, Barbara (1994) "Fieldwork at Home. The Interest in Psychology and the Problem of Writing", *Etnofoor* 7 (1); 73-96. or.
- BRETTELL, Caroline B. (ed.) (1993) *When They Read What We Write. The Politics of Ethnography*, Westport. Connecticut – London: Bergin & Garvey.
- GEERTZ, Clifford (1989) *El antropólogo como autor*. Barcelona: Paidós.
- HASTRUP, Kirsten (1993) "The Native Voice - and the Anthropological Vision", *Social Anthropology* 1 (2); 173-186. or.
- LEACH, Edmond (1982) *Social Anthropology*. London: Fontana Paperbacks.
- MESSERSCHIMDT, Donald D. (1981) "On Anthropology 'at home'" in D.D. MESSERSCHIMDT (ed.) *Anthropologists at home in North America. Method and Issues in the Study of One's Own Society*. Cambridge: Cambridge University Press; 3-14. or.
- . (ed.) (1981) *Anthropologists at home in North America. Method and Issues in the Study of One's Own Society*. Cambridge: Cambridge University Press.
- NARAYAN, Kirin (1993) "How native is a 'Native' Anthropologist?" *American Anthropologist* 98; 671-686. or.
- NUKUNYA, G. K. (1994) "Insider Anthropology. The Case of the Anlo Ewe", *Etnofoor* 7 (1); 24-40. or.

Leizaola, Aitzpea: Antropologoa etxean

PRICE, David (1997) "Anthropological Research and the Freedom of Information Act", *Cultural Anthropology Methods* 9 (1); 12-15. or.

—. (1998) "Gregory Bateson and the OSS: World War II and Bateson's Assessment of Applied Anthropology", *Human Organization*; 57. or.

SAID, Edward (1991) *Orientalism. Western concepts of the Orient*. London: Penguin.

VAN GINKEL, Rob (1994) "Writing Culture from Within. Reflections on Endogeneous Ethnography", *Etnofoor* 7 (1); 5-23. or.